

Amorebieta eta Etxano; maiatzak 18 zituen



Asteon 85 urte bete dira Amorebieta eta Etxano udal-erriak frankisten menpe geratu zirenetik. Udal-erri biek eraso, errepresio eta bonbardaketa gupidagabeak jasan zituzten aste luzeetan. Udalak biktimak omentzeko ekitaldiak antolatu ditu eta Aranzadi Zientzia Elkarteak ikerlan bat garatu du garai hartako errepresioa eta giza eskubideen urraketak jasotzeko. Aitor Pescador historia-laria arduratu da ikerketaz. • 2-3



Mañarian askotariko produktuen azoka egingo dute, 25 postugaz

Mañaria • Artisau, elika-dura eta landare azokak 26. aldia beteko du domekan. Azokagaz batera, azpigorri arrazako ahuntzen erakustaldia eta lehiaketa ere egingo dituzte plaza ondoko aparkalekuan. • 6

Hitzez eta Ahotsez irakurraldian izena eman daiteke

Hitzez eta Ahotsez irakurraldi girotua ekainaren 10ean egingo dute aurten, eta zabaldu dute jada izena emateko epea. Lau multzotan banatu dute apuntatzeko tartea, orduka; 17:00etan hasiko da irakurraldia, eta 21:00ak arte iraungo du. Ekitaldia Benita Uribarrena parkean izango da. Euria eginez gero, San Agustin kulturgunera lekualdatuko dute • 25



“Bonbardaketen ostean, Zornotzako zati handi bat gerra-presoeek berreraiki zuten”

Errepresio frankistak eta gerra zibilak Zornotzan izandako eragina jaso du Aitor Pescador Aranzadi zientzia elkarteko historialariak liburu bitan Zornotzako Udalaren laguntzagaz

DURANGO · E. HERRERA / J. GUENETXEA

1931-1945. urteen artean erre-presio frankistak eta gerra zibilak Zornotzan izandako eragina liburu bitan jaso du Aitor Pescador historialari bilbotarrak. Lehenengo liburuak artxiboko 300 argazkitik gora jasotzen ditu, besteak beste. Aranzadiko kideak dokumentazio lan handia egin du urte haietan herrian bizitakoa azaleratzeko. Esate baterako, sasoi hartako Amorebieta eta Etxano herriek asteetan jasandako bombardaketak ez dira hain ezagunak. Garai hartako beste gertaera batzuk ere kontatzen dira. Argazki historikoetariko batean, maiatzaren 18an Zornotza hartu zutenean teniente koronel frankista zaldi gainean herrian sartzen agertzen da. Autoreak berak aitortu duenez, gertaera belikoak baino, errepresioak herritarrengan izan zuen eragina jasotzea izan du helburu.

Zein errepresio mota dokumentatu dituzue?

Oinarrian lokalizatu duguna errepresio beroa eta hotza izan dira. Errepresio bero modura izendatuko genuke Zornotza hartu zutenean gertaturiko hilketak, Aita Roman Urriaga karmeldarrarena adibidez. Ez dago epaiketarik. Atxilotu eta exekutatatu egin zituzten frankistek. Berehala errepresio hotza hasi zen. Frankismoak sorturiko legediaren bitartez, gerran borrokatu zirenen kontrako auziak hasi ziren, baita populazio zibilaren aurkakoak ere. Milizianoen aurkako prozesu asko heriotza zigorragaz eta kartzelaldi luzeekin amaitu ziren, kasu batzuetan 30 urte baino gehiago. Udal bizitzan parte hartu zutenen aurka ere egin zuten. 1939ko erantzukizun politikoen legea oinarri hartzen zuten eta legearen aurreko gauzengaitik ere epaitzen zituzten. Arlo kulturean, politikoan zein hezkuntzan jardun zutenak epai-

tu zituzten eta ondasunak konfiskatu zizkieten. Horrela, ordaindu beharreko isuna birkalkulatzen zuten. Frankismoaren mendeku eredua oso ondo kalkulaturiko sistema izan zen eta errepresioa herritarren hilketetatik haratago eraman zuten. Pertsekuzio ideologiko eta politiko konstantea izan zen. 1945era arte ikertu dugu, baina prozesu batzuek 50eko hamarkadara arte iraun zuten. Eredue errepresibo horretan errua orokortu egin zen. Epaiketa horietariko informeak herritarrengatik zetozen. Batez ere, frankismoak ezarritako alkatearen, abadearen, Guardia Zibilararen arduradunaren eta herriko falangearen arduradunaren informeak ziren. Horren aurrean, herritarrek euren errugabetasuna frogatu behar zuten. **Ikerketaren zati bat herritarren lekukotzekin osatu duzue.**

Bai, eta orokorrean lekukotzetan ez dago gorroto edo mendeku nahirik. Beharrezana dago memoria berreskuratzeko. 40 urteko errepresioa izan zen. Gertaturikoa moduren batean ezagutaraztea gura izan dute.

Amorebieta eta Etxano frontearen zeuden, posizio estrategikoa zuten Burdinazko Hesian. Errefuxiatu kopuru handia jaso zuten

Artxibo lan handia egin duzue.

Estatu espainiarrean, errepresioaren eta gerra zibilaren arloan, orain zabaltzen ari diren artxiboak daude. 80 urte geroago dokumentazioa berreskuratzeko prozesu batean gaude, eta oraindino informazioa ezagutzen ari gara. Ildo horretatik, Zornotzan ospitale bat egon zen. Beraz,



Aitor Pescador Medrano

Aranzadi

BILBO | 1970

zauritu asko egon zen ospitale horretan. Bertan hil zirenak Zornotzako frontearen hildako lez erregistratu zituzten. Frontean hildako hamarnaka asturiar ere Zornotzan hildakotzat erregistratuta daude. Bestalde, 1947ra arte martxan egon zen emakumeen kartzela ere ikertu dugu. 2.000 espetxeraturen izenak jaso ditugu.

Amorebieta eta Etxano puntu estrategikoa batean zegoen.

Komunikazioen lotune bat izan zen. Amorebieta eta Etxano frontearen zeuden, posizio estrategikoa zuten Burdinazko Hesian. Errefuxiatu kopuru handia jaso zuten. Horregaitik, gerraren ondorio guztiak jasan zituzten. Bonbardaketak eta herritik gertuko enfrentamenduak gertatu ziren, maiatzaren 18an jausi arte.

Zornotzako bombardaketa ez da hain ezaguna. Durangokoa, Elorriokoa edo Gernikakoa ezagunagoak izan ziren. Izan zuten ezberdintasunik?

Nahiko ezaugarri antzekoak dituzte. Neurri handi batean bombardaketa esperimentalak izan ziren, abiazio alemaniar

eta italiarrak gauzatuak. Agian, Zornotzako bombardaketak neurtuagoak dira Gernikako bombardaketan gertaturikoaren eraginez. Gernika agian proba gogorregia izan zen, eta, gainera, lekukoak izan zituen. Horren aurrean, posible da Amorebietan eta Etxanon bombardaketa selektibo eta progresiboagoa egin izana, kasu honetan ere po-

Populazio zibilaren aurkako terrorearen bombardaketak praktikatzen jarraitu zuten Zornotzan

pulazio zibilar eraso egin zioten arren. Bomba su-eragileekin eta lehergailuekin esperimentatzen jarraitu zuten ikusteko etxeak zelan apurtzen ziren eta ondoren zelan jausten ziren. Hala ere, sentsazio bat dago erakusten duena Gernikaren osteko bombardaketan zelanbaiteko modorazio bat dagoela.

Zenbat bider bombardatu zituzten Amorebieta eta Etxano?

Sei bider baino gehiago. Maiatzaren 14tik 17ra bombardaketak nahiko intentsoak izan ziren. Hildako ugari eragin zuten. Gernikan egon zen George Steer kazetariak esan zuen Zornotzako bonbak ere ikusi zituela eta eztanda egin bako bonbaren bat lokalizatu zuela. Kazetari horrek dio Gernikakoak baino tamaina txikiagokoak zirela baina lehergailuzkoak zirela eta sua eragiten zutela. Beraz, populazio zibilaren aurkako terrorearen bombardaketak praktikatzen jarraitu zuten Zornotzan.

Bonbardaketa hauek zenbat hildako eta zauritu eragin zituzten guztira?

Ez dago estimazio zehatzik. Izan ere, gerrako frontea bertan kokatuta zegoen. Apirilaren 13ko, 22ko, 28ko eta 30eko bombardaketak erregistratuta daude. Maiatzaren 14tik 17ra ere hainbat bombardaketa egon zen. Apirilaren 30ean hain zuzen ere, Bilbo-Zornotza errepidea bombardatu zuten eta 22 hildako eta 34 zauritu eragin zituen. Ez dugu zifra zehatzik.

Liburu bi kaleratuko dituzue. Jasoriko informazioa zelan antolatu duzue liburu bi horietan?

Lehenengo liburua historian oinarrituta dago, eta bigarrena izenetan. Liburu bietan herritarrengan zentratu gara batez ere. Lehenengo liburuan, 1931tik 1937ra Zornotzaren testuingurua azaltzen da. Bonbardaketari buruz berba egiten da, baina helburua herritarren bizitza azaltzea izan da, ez hainbeste gai belikoak jasotzea. Esate baterako, Errepublikak aldarrikatzen denean udaleko aktak elebitan idazten hasi ziren: euskaraz eta gaztelaniaz. Beste adibide bat: Zornotza hartu eta hilabete gutxira hilerriko hilarrietan euskarazko izenak aldatu behar izan zituzten, alkateak horrela eskatuta. Zerrenda bat egin zuten. 1940ko hasieran gertatu zen.


Bonbardaketek Zornotzako etxeak txikitu zituzten. Zelan berreraiki zituzten?

Francok, 'La Nueva España' ereduaren barruan, hainbat herri adoptatu egin zituen, eta Zornotza horietariko bat izan zen, 1939ko abenduaren 15eko dekretu baten bitartez. Hortik aurrera, eskualde suntsituen zerbitzu nazionalen sartu zen. Hau da, berreraiki egin behar zen. Gorriek eta nazionalistek suntsituriko inguruak berreraiki behar zirela zioen publizitate frankistak. Udaletxea, 70 etxe partikular baino gehiago, umeen eskola nazionala, merkaturko arkupeak, Guardia Zibilarentzako kuartel berri bat, hiltegi berri bat... Hori guztia Reconstrucción deitzen zen aldizkari batean ira-

gartzen zen. Liburuan berreraikitze horretako hainbat argazki ikusi daiteke. Obra horietariko asko Deustuko kartzelako presoek egin zituzten. Mota honetako berreraikitzeak Batallones de Soldados Trabajadores delakoek egiten zituzten. Frankismoak epaitu ere egin ez zituen soldaduak ziren. Gerra-presoa ziren. Ez zeuka-

Amorebieta eta Etxano frontean zeuden, posizio estrategikoa zuten Burdinazko Hesian. Errefuxiatu kopuru handia jaso zuten

ten sententziarik. Kontzentrazio esparru batean zeuden, kasu honetan Deustukoan. Horrela, Zornotza frankismoak sorturiko ibilbide turistiko baten parte izan zen: La Ruta de la Guerra del Norte. Gernika, Durango, Bilbo, Santander, Gijón... 1938ko ekainaren 14tik aurrera, turismoko zerbitzu nazionalak Zornotzako Udala informatu zuen ibilbide horretako parte zela esanez eta horren arduradunekin kolaboratu behar zuela azalduz. Interesa zuten lekuen eta gerraren eraginez kaltetuak izan ziren tokien berri ematea eskatzen zioten udalari. Ibilbide horretarako erakargarria izan zitekeen guztia. Familia frankistek esaten zuten gorriek eta nazionalistek eragindako kaltea ikustera zihoazela.



Panzer I tanke alemana Zornotzako udaletxearen aurrean.



Neskatoen Eskola Nazionala birrinduta geratu zen bonbardaketen ondoren.

Domekan oroimen ekitaldia egingo dute gerraren eragina jasan zuten zornotzarrak omentzeko

Zornoza elkarte kulturalak antolatu du ekitaldia. 12:00etan egingo dute, Zelaieta parkean, Alaiak abesbatzak lagunduta

ZORNOTZA • EKAITZ HERRERA

1937ko maiatzaren 18an Amorebieta eta Etxano udalerriak frankisten menpe geratu ziren asteetako erasoak eta errepresioa jasan eta gero. Asteon, data hura gogoratzeko ekitaldiak egiten dabilta Zornotzan. Udalagintariak, eguaztenean, suontzi bat isiotu zuten Zelaieta parkean. Sua isiotuta, gerraren eta errepresioaren biktimak gogora ekarri zituzten. Eta sirena hotsa ere egon zen entzungai. Zelaieta zentroko teilatutik aktibaturiko sirena hotsak herriguneko kaleetan zehar barreiatu zuen data ilun hura gogorarazteko deia. Ekitaldia, gainera, errekreazio txiki batek lagunduta egin zuten. Erreketek eta falangista jantzitako aktoreak gerra garaiko traza zuen ibilgailu batean agertu ziren Zelaieta parkean.



Eguaztenean, udal agintariak suontzia isiotu zuten gerrako biktimak omentzeko.

Asteon, omenaldi gehiago ere egongo da. Zornoza kultur elkarteak urteak daramatza gerra-

ko biktimei aitortza egiten, eta aurten ere ekitaldia egingo du Zelaieta parkean. Lore-eskaintza

domekan izango da, 12:00etan, eta bertan Aranzadi Zientzia Elkarteko kideak eta Alaiak abes-

batzako kideak izango dira. Bestalde, elkarteak gogora ekarri du Gregorio Arrien zenak memoria historikoa lantzeko urteetan egindako lana. Abade eta historia dibulgatzaile kortezubiarrek lotura estua zeukan Zornotzagaz. Bertan bizi zen. 2019ko abenduan hil zen.

Erakusketa Zelaieta zentroan

Zornotzako Udalak prestaturiko beste egitasmo bat *Amorebieta/Etxano bonbapean* izeneko erakusketa da. Erakusketa Zelaieta zentroan dago ikusgai. Ekainaren 3ra arte dago zabalik. Eta bertan, bonbardaketetan botatako jaurtigaiak, argazkiak eta gudarien jantziak ipini dituzte.

Bestalde, *Apaiz kartzela* pelikula ikusteko aukera egongo da maiatzaren 31n. Dokumentalean, Zamorako (Espainia) apaiz kartzelan egondako lau abaderen bizipenak kontatzen dira. Tartean, Xabier Amurizaren testigantza. Emankizuna Zornotza Aretoan egingo dute, 20:15ean.

Arripausuetan zegoen Deabruaren Zubia harririk harri Zuhatzola parkean berreraikitzen hasiko dira laster

Ondare historikoa ez galtzeko, Durangoko Udalak eta URA agentziak zubi ezaguna lekualdatzea adostu zuten orain dela hile batzuk

DURANGO • JONE GUENETXEA

Deabruaren Zubia Arripausuetatik kendu eta Zuhatzolako parkera eramane zuten orain aste batzuk. Zubia harririk harri deseraiki eta kokapen berrira eramaten ibili dira. Orain, Zuhatzola parkean ezarritako leku berrian berreraikiko dute. Zubi berriko zimenduak ipinita daude eta laster hasiko dira harriak bata bestearen gainean ipintzen.

Erabaki hori URAgaz hitzarturiko akordioan oinarrituta hartu zuten. Izan ere, iazko ekainean udalak eta URAk akordioa adostu zuten Arripausuetako ondarea ez botatzeko. Itun horren arabera, Deabruaren Zubia lekuz aldatzea erabaki zuten.



Zubia osatzen duten harriak Zuhatzolan pilatuta.



Zubia berreraikitzen dutenean horrela geratuko da.

Sorginolako materiala Garai jauregira lekualdatuko dute behin-behinean

Durangoko Udalak jakinarazi duenez, Sorginolako kideek biltegi eta bilera gela modura baino ez dute erabiliko eraikina, alde biek gazteentzako leku berri bat topatu bitartean

DURANGO • EKAITZ HERRERA

Garai bateko Fundifes fabrika, gaur egun Sorginola dagoen lekua, bota egingo dutenez, Durangoko Udalak eta Sorginolako gazteek bertako materiala Garai jauregira eramatea eta epe batez bertan gordetzea erabaki dute. Udalak jakinarazi duenez, gazteek "biltegi eta bilera gela lez" baino ez dute erabiliko eraikina. Eta erabilera hau behin-behinekoa litzateke, "alde biek gazteek euren jarduerak egiteko gune berri bat bilatzeko lanean jarraitzen duten bitartean".

Sorginolako kideen egoerari "irtenbide adostu bat" bilatzeko lanetan dabilela adierazi du udalak.



Garai jauregia.

89 lan aurkeztu dituzte Book Trailerren VI. lehiaketara

Lan hauetan 300 bat ikasle inplikatu dira. Sari banaketa domekan egingo dute, San Agustin Kulturunean

DURANGO • EKAITZ HERRERA

Book Trailerren seigarren lehiaketak parte hartze kopuru politak utzi ditu. Durangoko ikastetxeetako ikasleek ederto erantzun diote irakurritakoa ikus-entzunezko bihurtzeko proposamenari. 300 bat izan dira lehiaketan parte hartu duten ikasleak, eta taldekako lana eginda 89 lan aurkeztu dituzte. A kategoriako 33 lan eta B kategoriako 56. Fray Juan Zumarraga Institutuko, Zabalarra Eskolako, Kurutziaga Ikastolako eta San Antonio zein Jesuitak ikastetxeetako ikasleek parte hartu dute lanotan. Miriam Peña eta Ainhoa Olaso durangarrek hartu dute ikus-entzunezko trailerrak baloratzeko ardura.

Sari banaketa domeka honetan egingo dute, San Agustin Kulturunean. Kategoria bakoitzeko irabazleek 150 euro eta liburu sorta bat lortuko dute. Horrez gainera, gidorik onena ere sarituko dute, beste 150 euroguz eta beste liburu

Sarien artean 150 euro, liburu sortak eta Fujifilm Instax Mini 9 kamera daude

sortaategaz. Azkenik, publikoaren saria egongo da. Taldekide bakoitzak Fujifilm Instax Mini 9 kamera irabaziko du.

anboto

Bixente Kapanaga, 9
48215 Iurreta - Bizkaia
Tel.: 946 816 558

Erredakzioa: 946 232 523
Publizitatea: 946 217 902
publi@anboto.org

2021eko maiatzaren 20a
20. urtea - 893. alea

Lege gordailua:
BI-2268/01
ISSN:
1578-7028
Tirada:
12.000 ale



Bizkaia
foru aldundia
diputación foral

Aldizkari honek Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza jaso du

EUSKO JAURLARITZA

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak diruz lagundua



GOBIERNO VASCO

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

Tokiko komertzioak sustatzeko ituna martxan berriro ere

Durangoko Udalak 47.000 euroko diru laguntza eskaini dio Dendak Bairi komertzioen aldeko kanpainak egiteko



Durangoko Kurutzia kalea.

DURANGO • JOSEBA DERTEANO
Durangoko Udalak eta Dendak Bai Merkataritza eta Ostalaritza Elkarteak hitzarmen berria sinatu dute herriko negozio txikiei bultzada bat emateko asmoz. Hitzarmen honi eskerrak, Dendak Baik 47.000 euro jasoko ditu Durangoko Udalarengandik, herriko merkataritza txikiaren aldeko kanpainak garatu ditzan, udalak ohar batean informatu duenez. Besteak beste, etxerik etxeko banaketa, Aukera Azoka, 'Guk, Durango' kanpaina, 'Durango Txartela' eta merkatarien formakuntzarako ikastaroak finantzatzeko balioko du hitzarmen horrek. "Herriko negozio txikietan kalitatezko produktua eta bezeroarekiko gertutasuna eskaintzen ditugu, hain beharrezkoa dena garai hauetan. Horregaitik, garrantzitsua iruditzen zaigu udalaren eta Dendak Bairen

arteko lankidetzan sakontzea", adierazi dute Aritz Bravo zinegotziak eta Alex Palacios Dendak Baiko presidentek.

'Guk Durango', 'Durango Txartela' eta merkatarien formakuntzak finantzatuko dituzte

Bultzada digitala
Bestalde, udalak eta Dendak Baik Durangoko Merkataritzaren Bultzada Digitala eta Lehiakortasuna Programa aurkeztu dute, tokiko merkataritzari digitalizazio prozesuan laguntzeko eta irtenbide digital pertsonalizatuak eta doa-koak eskaintzeko. Programa hori Durangon merkataritza lokal bat duten pertsona guztiei zuzenduta dago.

"Borondate politikoagaz eskolako jangeletan tokiko elikagaiak eskaintzea posible dela ikusi dugu"

Gure Platera, Gure Aukera komunitateko delegazio batek Italiara bidaiatu du hango eskola-jangelen kudeaketa ezagutzeko. Tartean egon da Alex Azpiri, Berton Bertokoakoa



Alex Azpiri Berton Bertokoa dinamikako kidea (goian, ezkerretik bigarrena) Gure Platera, Gure Aukera dinamikako kideekin.

DURANGALDEA • EKAITZ HERRERA
Alex Azpiri atxondarra Italiara joan da hango eskola-jangelen kudeaketa ezagutzeko eta "oso pozik" bueltatu da. Esperientzia "abergarria" izan dela dio eta Sesto Fiorentino herrian (Florentzia, Toscana) ezaguturikoa nabarmendu du: "Sesto Fiorentinokoa esperientzia aitzindaria da. Catering enpresa batek kudeaturiko eredutik udal kudeaketara pasatu dira. Hiriaren bueltako udalerriak ere proiektura batu dira eta gaur egun 8.000 menu eskaintzen dizkiete eskoletako umeei eskualdean, denak tokiko produktuekin". Eskualdeko 25 ekoizle eta kooperatiba arduratzen dira horretaz, nahiz eta badauden urrutiagoko ekoizleak ere. "Beste kontu bat ere badago. Proiektu hau martxan ipini baino lehenago,

ikerketa bat egin zuten. Eskoletako menuak aztertu zituzten Italia osoan zehar, eta hor, Sesto Fiorentino zerrendako azken partean kokatu zen. Gerora, tokiko ekoizleekin eta kudeaketa publikoagaz garaturiko proiektu hau martxan ipini zenetik, Sesto Fiorentinoko eskola menua Italia osoko hamar onenen artean egotera pasatu da", azaldu du Azpirik.

"Borondate politikoa"
Atxondarrak eta Berton Bertokoa dinamikako kideek eredu hori gura dute Durangaldeko eskola publikoentzat. Baina, euren esanetan, "borondate politikoa" beharko litzateke horretarako. "Hango pleguetan, eskoletako menuak lizitzatzeko pleguetan, gertuko produktuak saritzen dira. Hau da,

0-50 edo 50-100 kilometrorra bitarteko elikagaiak erabiltzen dituzten enpresek puntuazio hobea izaten dute lehiaketa publikoan. Hemen ere horrelako neurriak eta pleguak

"Sesto Fiorentinon eta haren inguruko herrietan, tokiko elikagaiekin osaturiko 8.000 menu ematen dituzte"

ipintzea posible dela uste dugu, azken finean, Europako legedira egokitzen direlako Italiako zein hemengo legediak. Borondate politikoa badago, jangelen kudeaketa publikoa eta tokiko elikagaiak bateragarriak direla uste dugu", dio Azpirik.

Zornotzako nagusien danborradan izena emateko epea maiatzaren 27ra arte dago zabalik

16 urtetik gorakoek eman dezakete izena. 14 urtetik gorakoek ere bai, antortxero lez

ZORNOTZA • EKAITZ HERRERA
Danbor hotsa entzuteko prest? Sukaldari, danborrari edo kantine-
ra janzteko gertu? Zornotzarrek, behintzat, bai. Udala Karmen eta Santanaxu jaiak antolatzen hasi da eta baieztatu du uztailearen 24an Nagusien Danborrada egingo dutela herrian zehar. Hori bai, bertan parte hartu gura duten herritarrek izena eman beharko dute maiatzaren 27a baino lehe-

nago. Horretarako, www.ametx.eus atarira edo Zelaieta Zentrora jo beharko dute. 16 urtetik gorako zornotzarrek parte hartu ahalko dute danborradan, baina baita 14 urtetik gorakoek ere; horien kasuan, antortxero lez.

Entseguak ekainean
Danborrari eta beteranoen entseguak ekainaren 9an, 16an eta 30ean, eta uztailearen 7an 14an

eta 21ean izango dira, 19:30ean. Fusilatzaileenak ekainaren 17an eta uztailearen 1ean, 13an eta 20an izango dira, 19:30ean. Udalak adierazi du derrigorrezkoa izango dela entseguetan parte hartzea, eta entseguetara birritan baino gehiagotan huts egiteak danborradan parte ez hartzea eragin dezakeela. Kasu guztietan danborradaren komisioari jakinaraziko diote erabakia.



Zornotzako danborradako kideak, 2016ko entsegu batean.

Mañariko plaza inguruan artisau, elikadura eta landare azoka egingo dute domeka honetan, askotariko 25 postugaz

Azokagaz batera azpigorri arrazako ahuntzen erakusketa ere ikusgai egongo da plaza ondoko aparkalekuan, eta umeentzako tailerrak ere egongo dira



Aurreko azoka bateko argazkia.

MAÑARIA • J.DERTEANO

Domeka honetan, Mañariko artisau, elikadura eta landare azokaren 26. aldia egingo dute plazan, 10:00etan. Askotariko 25 postu batuko dira bertan, aurreko aldietako antzerako kopurua. Deneriko produktuak

aurkitu ahalko dira eta batzuk eskualdekoak dira: Andoni Padilla otxandiarren edo Aitor Urien abadiñarraren gaztak eta Mallabiko Mañeko gozogintza, besteak beste. Horrez gainera, pateak, txakolina, produktu ekologikoak eta eztiak dira azokan

Eztia, gazta, pateak, gozogintza eta askotariko produktu ekologikoak egongo dira azokan

erosi ahalko diren beste produktu batzuk. Jan-edanik ere ez da faltako. Ohiturari jarraituz, antxume bat erreko dute plazan, eta pintxotan salduko dute. Bestalde, frontoian umeentzako ekintzak izango dira. Alluitz Naturako kideek ortu ekologikoari

eta artileari buruzko tailerrak eskainiko dituzte.

Hutsik egingo ez duen beste jarduerak bat azpigorri arrazako ahuntzen lehiaketa da. Ahuntzak plaza ondoko aparkalekuan egongo dira ikusgai. Ondorioz, aparkalekuan ezingo da kotxerik aparkatu bariku goizetik astelehen eguerdira.

Alluitz Naturak ortu bertikalei eta artileari buruzko tailerrak emango ditu umei begira

Zirkubira eta dokumentala

Mañariko hamabostaldi kulturalaren barruan beste ekintza batzuk ere egongo dira. Gaur, maiatzak 20, 19:00etan, *Tipularen sehaska kanta* dokumentala eskainiko dute liburutegi zaharrean. Lander Garrok zuzenduriko film-dokumentalak kartzelan gaixotasunak suposatzen duen samina azaleratzea du helburu. Horretarako, kartzelan gaixo egotearen esperientzia bizi izan dutenekin egon da.

Azkenik, zapatuan, azoka bezperan, jaia kalera aterako dute Zirkobira taldearen animazioagaz.

Otxandiarrek abestuta, 'Amuak bota ditu' abestia grabatu dute

Otxandion grabazioa egin dute Pausoka ekoiztetxea Euskal Telebistarako egiten dabilen programa baterako

OTXANDIO • J.D.

Pausoka ekoiztetxea 'SOS kanta arriskuan' izeneko programa berria lantzen ari da ETBrako, eta atal bat Otxandion grabatu dute. Kanta zahar bat berreskuratzea eta hari buruzko istorioa erakus-

tea dira programaren helburuak. Otxandion *Amuak bota ditu* abestiarren gainean ikertu dute eta joan zen astean abestia grabatu zuten herritarren laguntzagaz. Oraindino ez dakite Otxandioko saioa zein egunetan emitituko den.



Otxandiarrak 'Amuak bota ditu' abestia grabatzen.

Mallabian gazta eta garagardo dastatzea egingo dute, zapatuan

Gazta dastatzea aurretik ere egin dute, baina garagardoarena nobedadea da; Garaikoa ekarriko dute

MALLABIA • J.D.

Mallabiko hamabostaldi kulturalaren barruan, gazta eta garagardo dastatzea egingo dute zapatuan, 18:00etatik 21:00etara, probalekuan. Sarrera doakoa da. Bost gazta eta bost garagardo egongo dira aukeran. Oraingoa ez da gazta dastatzea egingo den lehenengo aldia, baina garagardoarena nobedadea da. Garaiko Brewing markako zerbeza probatu ahalko da. Bost gaztak honako hauek izango dira: Sorluzeko Egotza ahuntz gazta, Eibarko Sosola baserriko ardi gazta ekologikoa, Mutrikuko Goienetxe Idiazabal gazta, Elgoibarko Mausitxa Idiazabal gazta eta Mallabiko Axeleku behi gazta.

Egun berean ekimen gehiago ere badago. Goizerako, 10:30ean

irtenda, mendi irteera antolatuta dute guraso elkarteek. Areitio-ko Goierrri auzotik Satamañezar mendira joango dira.

Debabarrenako lau gaztagaz batera Mallabiko Axeleku behi gazta egongo da dastagai

Bestalde, domekan auto klasikoaren erakusketa egingo dute. Autoak Mallabiko parkean ikusi ahalko dira goizean zehar, eta 12:30ean ibilbide bati ekingo diote. Ibilbidetik bueltan Trabakuan geratuko dira eta auto klasikoak onenak saritzeko ekitaldia egingo dute bertan.

Zazpi proposamen aurkeztu dituzte Izurtzako kartel lehiaketara

IZURTZA • J.D.


Izurtzako jaiak iragartzeko kartel lehiaketara proposamenak bidaltzeko epea joan zen bari-kuan amaitu zen. Guztira, zazpi

Epaimahaia datozen egunetan batuko da; proposamen irabazleak 300 euro jasoko ditu

lan aurkeztu dituzte aurtien, aspaldiko urteetako gehien, udal ordezkarien esanetan. Epaimahaia datozen egunetan batuko da irabazleak zein den erabakitzeko. Erabakiaren berri maiatzaren zehar emango dute. Proposamen irabazleak 300 euroko saria jasoko du.



Ostalaritza gida



*Profesionalik
onenak zure
zerbitzura!*

**Durango**



AI AMA
Joxe Miel barandiaran 2, behe, DURANGO
Tel.: 946 232 240

Gosaldu bazkaldu zein afaltzeko aukera.
Gozo eta osasuntsu gainera!

**Abadiño**



ABARKETERUENA
Iturritxo, 6 - Txanporta plaza, ABADIÑO
Tel.: 944 657 790

Eguneko menuak eta asteburuetako
menu bereziak. Goizetik pintxoak.
Giro oso ona.


**Zornotza**



XIBERU
Zezilia Gallartzaigoitia, 9
Tel.: 946181758

Gosari bereziak egunero, pintxopotea
ostegunero eta afariak astebururo. Giro
alaia eta atsegina. Ongi etorri Xiberura.

**Durango**



MIKELDI TABERNA
Kalebarria, 7 - DURANGO
Tel.: 944 073 988

Gosari eta pintxo aukera handia giro
ezin hobean.

**Iurreta**



GAUARGI
Dantzari Etxetaldea, IURRETA
Tel.: 944 356 674

Gosariak, pintxoak, molleteteak,
rabak, errazioak eta askotariko tortilak
enkarguz,...

**Durango**



IBAIZABAL
Ibaizabal taldea, 2A - DURANGO
Tel.: 946 550 185

Plater konbinatuak, hanburesak,
ogitartekoak eta kazolatxoak.



Kantu bat gara, Dupla, Bulego eta Skakeitan Abadiñoko San Trokazetako bigarren asteburuan

Abadiñarrek domekan emango diete amaiera San Trokaz jaiei, 20:00etan Gerbasi agur eginda

ABADIÑO • MAIALEN ZUAZUBISKAR

San Trokaz jaietako lehenengo asteburu arrakastatsuen ondoren, abadiñarrak prest dira bigarren asteburuari ekiteko. Gaur, 18:00etan, DJ Porrugaz umeentzako disko festa egongo da Txanporta plazan. Gauean, 22:00etan, Jon Maiak 'Kantu bat gara' proiektua aurkeztuko

du. Zumaiaiko bertsolari eta abeslariak abesti ugari idatzi du hainbat musikari eta talderentzat azken 30 urteetan, eta horietariko batzuek 'Kantu bat gara' disko-liburua kaleratu du. Maiaren kontzertua 22:00etan hasiko da.

Zapaturako, egun osoko egitaraua antolatu dute Abadiñon.

Umeentzako jolasekin eta gazteen-
tzako emozio parkeagaz emango diote hasiera egunari. 12:00etan, Otxote Muñatones taldeak Zelaietako kaleak girotuko ditu eta, 14:30ean, abadiñarrak Ferialekuan batuko dira paella jatera. 18:30ean, Orkestra elektrotxarangagaz kalejiran ibiliko dira eta, gauean, Dupla, Bulego eta Skakeitan taldeek kontzertua joko dute.

Domekan amaituko dituzte jaiak, maiatzak 22, Gerbasi agur esanda. Aurretik, baina, artisautza azoka, tailerrak, dantzariak eta txokolatada egongo dira. Artisautza azoka 11:00etatik 15:00etara egongo da, Ferialekuan, eta dantzariak 18:00etan egingo dute euren saioa, Txanporta plazan. Saioaren ondoren, 19:00etan, txokolatada egongo da Txanporta plazan bertan.



Talde Batuakeko dantzariak Santo Domingo eguneko saioan, jaietako lehenengo egunean.

La Magdalena enpresan mobilizazioak hasi dituzte

Abadiñoko Transmisiones La Magdalenako langileek kalera irtengo dute maiatzeko bariku guztietan

ABADIÑO • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Abadiñoko Transmisiones La Magdalenako langileek mobilizazioak hasi dituzte zuzendaritzaren jarrera salatzeke. LAB sindikatuak jakinarazi duenez, langileak lan hitzarmena negoziatzeko eskatzen dabilta eta soldata igotzea eta enpresa barruan dagoen soldata arrakala amaitzea dira euren eskaera nagusiak. Hori eskatzeko eta protesta egiteko, langileek maiatzeko bariku guz-

tietan irtengo dute kalera, errelebo aldaketan.

Bestalde, LAB sindikatuak salatu du enpresak ez duela inongo borondaterik akordiorik lortzeko.

Protesta hauek ez dira Transmisiones La Magdalenako langileek egiten dituzten lehenengoak. 2021eko urtarrilean ere kalera irten zuten. Orduan ere "soldata-diskriminazioa" amaitzea eskatu zuten.



La Magdalenako langileak enpresaren aurrean egindako mobilizazio batean.

Elorrioko Udalak ekainaren 13an zabalduko ditu Elizaldeko igerilekuak; aurten murrizketarik barik

Dagoeneko aukera dago Eleizaldeko kanpoko igerilekuan sartzeko abonua eskuratzeko; eguneko sarrera ere egongo da

ELORRIO • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Elorrioko Udalak ekainaren 13an Elizaldeko kanpoko igerilekuak zabalduta emango dio ongiatorria udari. Aurten, gainera, azken urte bietan ez bezala, igerilekua inongo murrizketarik barik zabaltzeko prestatzen dabiltzala jakinarazi du Elorrioko Udalak. Hori horrela, ordutegiari, baldintzei eta funtzionamenduari dagokienez, Elizaldeko kanpoko igerilekuek normaltasuna berreskuratu dute. Ekainaren 13tik irailaren 18ra zabalduko dituzte igerilekuak, 11:00etatik 20:30era, eta 1.400 lagun hartu ahal izango dituzte.

"Uda hasteko hilabete falta denenean, azken hobekuntza-lanak egiten gabiltza, Elizaldeko kanpoko igerilekuak normaltasunez eta berme guztiekin zabaldu ahal iza-

teko. Uda bitan osasun-agintaritzak ezarritako murrizketetara egokitu behar izan dugu eta ekainaren 13an ohiko jarduera eta zerbitzuak berreskuratu ditugu", azaldu du Dani Palacios zinegotziak. Igerilekuak zabalik egongo diren hiru

hileetan zerbitzu guztiak eskainiko dituzte: aldagelak, taberna eta aulkiak, besteak beste.

Prezioak eta abonua

Eleizaldeko kanpoko igerilekuan sartzeko, ezinbestekoa izango da

abonua eskuratzeko edo dagokion eguneko sarrera erostea. Horretarako, Elorrioko Udalaren webgunean dagoen izen-emate orria bete behar da eta kiroldegian entregatu beharko da. Abonua eskuragai daude dagoeneko.



Elorrioko Eleizaldeko igerilekuak.

Atxondoko nagusiek Pasai Donibanera irteera egingo dute ekainaren 4an

ATXONDO • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Atxondoko Anbotoko Dama nagusien elkarteak irteera egingo du ekainaren 4an. Elkartek Pasai Donibanera irteera antolatu du eta bertan bisita gidatuak izango dituzte. Bisitaren ondoren, bazkaltzeko batuko dira.

Apatamonasteriotik 09:00etan irten, eta goizean zehar Albaola eta Mater museoak bisitatuko dituzte. Gero, 14:30 inguruan, Pasai Donibaneko Arando jatetxean bazkalduko dute.

Anbotoko Dama nagusien elkarteak bazkideak zein bazkide ez direnak joan ahalko dira irteerara. Bazkideek 25 euro ordaindu beharko dute eta bazkide ez direnek 30 euro.



Anbotokide kanpainaren
aurkezpena:

Maiatzak 28

Benita Uribarrena
parkean, 13:00etan

Okm:
*batzen gaituen
distantzia*

Egin zaitez anbotokide!

**> anboto
kide**

Zaldibarren kontzertuak egingo dituzte Ernaiko mobilizazioetan parte hartzeagaitik atxiloturiko gazteak babesteko

Ekainean zazpi gazte epaituko dituzte iaz Ernaik deituriko mobilizazioetan atxilotu ostean; tartean, Durangoko gazte bi eta Zaldibarko beste bat

ZALDIBAR • A.M.
Ekainaren 15ean Euskal Herriko zazpi gazte epaituko dituzte Bilbon; tartean, Durangaldeko hiru gazte (durangar bi eta zaldibartar bat). Iazko maiatzean Ernaik deituriko mobilizazioetan atxilotu zituzten, Bilbon. Zortzigarren lagun bat ere atxilotu zuten, Gasteizen, baina hura absolutu egin zuten. "Guztira, hamabitik hamazortzi hilabetera bitarteko espetxe zigor eskaerei eta 20.000 euro baino gehiagoko isun eskaerei aurre egin beharko diete zazpi gazteek", azaldu dute Ernaitik ohar baten bitartez; Hego Euskal Herriko hiriburuetan egingako mobilizazioetako kargetan, Ertzaintzak 60 gazte baino gehiago zauritu zituela salatu du Ernaik. Elkartasun jaialdia barikuan egingo dute, Zaldibarren. Bertan, Liher, Zeker, Gora Etorri eta DJ Pary & Tiza taldeek parte hartuko dute. Kontzertuez gainera, afaria ere egongo da, emanaldien aurretik. 22:00etan hasiko dira hauek. Sarrerak, sei euroan erosi ahalko dira.



Iaz atxilotetak salatzeako egindako mobilizazioa, Durangon.

Ekainaren 15eko epaiketara begira, Ernai gazte antolakundeak hainbat mobilizaziotara deitu du. Besteak beste, ekainaren 4rako manifestaziora deitu dute.

Bilbon izango da, 17:30ean, Moyua plazatik irtenda. Hain zuzen ere, iaz mobilizatzeako izan zituzten arrazoi nagusiek "bere horretan" jarraitzen dute Ernaikoen

iritzian: "Gazteon langabezia eta prekaritate estrukturalagaitik, etxebizitza lortu ezinagaitik eta emantzipatzeko ezintasunagaitik, hezkuntza sistemaren pribatizazioagaitik, osasun mentalean gaixotasun psikosozialak areagotzeagaitik eta gazteriaren kontrako kriminalizazioagaitik irteten gertatzen diren kalera. Egun, egoera hori ez da aldatu; are gehiago, okertzen jarraitzen du".

Hilaren 15eko epaiketara salatzeako, Ernaik mobilizazioa egingo du ekainaren 4an, 17:30ean hasita

Sarrerak salgai
Kontzertuetarako sarrerak Zaldibarko Sorgin tabernan, Durangoko Intxaurren, Zornotzako Herrikoan eta Elorrioko Portan daude salgai, sei euroan; Igorreko (Bizkaia) Herrikoan eta Eibarko (Gipuzkoa) Guridin ere erosi daitezke. Egunean bertan ere erosi ahalko dira, gazetxean bertan, sarrerarik geratuz gero.

Berrizko jesarlekuetariko batzuk LGBTI banderaren koloreekin margotuko dituzte

BERRIZ • A.M.
Udal gobernu taldeak baiezkoka eman dio Elkarrekin Podemoseko David Jimeno zinegotziak egindako eskaerari, eta, ondorioz, herriko bankuetako batzuk LGBTI banderako koloreekin margotuko dituzte, "laster", alderdi morearen esanetan. "Udalerriko LGBTI pertsonen udalaren babesa sentitzea da honen helburu nagusia, eta, horrez gainera, herritarrak kontzientizatzea eta kolektiboaren aldeko borrokan erne egotearen garrantzia azpimarratu gura dugu. Era berean, aniztasunak hiri-altzariak birkonkistatzea gura du, bankuak

Udalak baiezkoka eman dio Elkarrekin Podemoseko Jimeno zinegotziak egindako eskaerari

tziatzea eta kolektiboaren aldeko borrokan erne egotearen garrantzia azpimarratu gura dugu. Era berean, aniztasunak hiri-altzariak birkonkistatzea gura du, bankuak

hain zuzen ere, LGBTI pertsonen aurkako gorrotzoko pintadak agertzen direlako", azaldu du Jimenok ohar baten bitartez.

Kartel lehiaketa martxan
Bestalde, Berrizko Udalak martxan ipini du San Pedro eta Santa Isabel jaien kartel lehiaketa. Herri-tarrek hiru proposamenen artean bozkatu dezakete. Ekainaren 1ean iragarriko dute irabazlea.



Berrizko jolasparke batean agertu den pintaketa.

Hondakindegiko tragedia gogoratzeko eskultura ipini dute Eitzagan

ZALDIBAR • A.M.
Eitzagako hondakindegia amildu osteko gertaerak gogoratzeko eta bertan lanean zeudela hil ziren Alberto Sololuze eta Joaquin Beltran langileak omentzeko asmoagaz egin zuten eskultura. Zaldibar Argituren asmoa oroigarri hori otsailean ipintzea zen, hondakindegia jausi eta urte bira. Zaldibarko Udalak, osteratzen, baimena ukatu zion elkarteari, "beste oroigarri bat" ipintzeko asmoa zuela argudiatuta; auzolanean egin zuen Iñaki Urizar zaldibartarrak eskultura, beste hainbat herrikidegarekin. Eguaztenean zabalduko ohar baten arabera, Eitzaga Brigadak hartu du bere gain ekimena. "Langile bi erailda, baten gorpua zaborpean utzia, milaka herritar kaltetuta, lurrak, airea eta urak kutsatuta. Ehunka lagun borrokan gertatutakoa eta ardurak argitzeko. Hori guztia gogoan, Eitzaga Brigadak gauzak bere lekuan ipini gura ditu, eta bat gutxienez ipini du", aldarrikatu zuten.

Hibai Etxebarria eta Xabi Aburruzaga Iurretan

IURRETA • J.G.
Iurretako auzorik auzo egitarauko hurrengo geldialdia San Marko auzoan izango da, maiatzaren 28an. Egun horretan, Hibai Etxebarria musikariak kontzertua eskainiko du, 18:00etan. Ondoren, auzokideek luntxa izango dute.

Hibai Etxebarriak kontzertua eskainiko du maiatzaren 28an, 18:00etan San Markon

Egitarauagaz amaitzeko, hurrengo kontzertua ekainaren 11n izango da, Orozketan. Xabi Aburruzagaren kontzertuak trikiti doinuak eramango ditu Iurretako auzora. Aburruzaga *Aurrez Aurre* diskoa aurkeztzen dabil, zuzeneko lehenengoa. Hogei urteko ibilbide oparoaren errepasoan, aurreko bost diskoetako kanteak osatzen dute emanaldi bakarrean grabaturiko lana.

"Garain euskarak garrantzia du, ez jakitea arraroa da; horregaitik da lagungarria Berbalagunera etortzea"

Garaiko Berbalagun taldea iazko urrian eratu zen. Sei-zazpi herritar barikuro-barikuro batzen dira euskaraz trebatu eta hartu-emanak sendotzeko



Garaiko Berbalagun taldea osatzen duten kideetarikoz batzuk, herriko plazan.

GARAI • EKAITZ HERRERA

Barikuetan Garaiko udaletxearen azpiko tabernara doanak hantxe topatuko ditu. Taberna barruan batzuetan. Terrazan beste hainbatean. Baina beti euskaraz trebatzeko lanetan. Garaiko Berbalagun taldeak iaz ekin zion bere ibilbideari, oharkabean ia-ia, herritar bik eus-

kara ikasteko harturiko determinazioagaitik. Eta hilabete bat joan beste bat etorri, eskubete herritar batu da taldera. "Orain pare bat urte hasi zen guztia, modu informal batean. Emazteak eta biok euskara ikasteko erabakia hartu genuen eta Josune Cosgaya herrikideari euskara praktikatzeko laguntzeko

eskatu genion. Josune gure etxera etortzen hasi zen, eta halantxik hasi genituen mintzapraktikak", azaldu du Enrique Ojenbarrena garaitarrak. Horixe izan zen taldearen ernamuina. "Gerora, Euskaraldiaren kanpaina bat tarteko, bilera bat egin genuen udalagaz", zehaztu du Josune Cosgaya. "Eta

bertan komentatu genien Berbalagun talde formal bat sortzeko ideia", gaineratu du. Taldea urrian hasi zen modu ofizialean martxan. Sei-zazpi herritarrek parte hartzen dute eta Ane Lusarreta Durangaldeko Berbalaguneko koordinatzailea aritzen da saioak dinamizatzen.

Hortik aurrerakoak gauza jakinak dira. Astean behin elkartzen dira, barikuetan, 18:30 aldera, tabernan. Hartuko dute kafetxo bat, ardotxo bat ere bai, beharbada. Eta hasiko dira dena delakoari buruz berbetan. Izan daiteke aktualitateari loturiko gairen bati buruz, izan daiteke politika, izan daiteke oraintsu ikusitako film bat, irakurritako liburu bat. Eta zergaitik ez, baita herriko kaleetan zehar bolo-bolo dabilen azken txutxumutxua ere, lerro hauek aipatzea komeni ez den hori. Kontuak kontu, Ane Lusarreta koordinatzaileak taldeak euskaraz trebatzeko duen gogoaz azpimarratu du: "Barikuetako mintzapraktika amaitutzat ematen dudanean, alde egiten dudanean, taldekideak hemen geratzen dira berriketan. Zelan esan,... kafea zena verdejo bihurtzen zaie zelanbait". "Bai, halantxik da!", gaineratu du Cosgaya. "Gainera, gutariko batzuk, zenbaitetan, Traña-Matienara jais-ten gara zerbait afaltzera. Han ere

segitzen dugu Berbalagun egiten", dio. "Bai, hori da. Azken finean, badakizu mintzapraktika zein ordutan hasiko den, baina ez noiz amaituko den", zehaztu du Lusarretak umorez.

"Mintzapraktika amaitzerakoan, taldekideak hemen geratzen dira berriketan"

Berbalaguneko kideek diote mintzapraktikak ondo datozela euskarazko hanka-sartzei beldurra galtzeko. Erregiñe Garamendiren kasua, behintzat, hori da: "Garain arraroa da euskara ez jakitea. Ni analfabetoa banintz lez sentitzen naiz. Hemen euskarak garrantzia du eta ez jakitea arraroa da. Niretzat oso lagungarria da hona etortzea eta beldurra kentzea", dio. Euskarak euskaldunen izaera hobeto erakusten duela dio Enrique Ojenbarrenak: "Euskaldunak desberdinak dira euskaraz berba egitean. Euskaraz dabiltzanean atseginago eta diren modukoak portatzen dira", dio.

Eta beharbada hor dago gakoa. Ikasten dabilenarentzat zein aritua denarentzat egoera atsegin bat sortzea.

Lujanbio, Lagoma, 'Abarkas', Katarain eta Agirre bertsotan arituko dira, zapatuan, Garain

GARAI • EKAITZ HERRERA

Beroa dago iragarrita. Termometroak goia joko ei du zapatuan. Bada, iluntze-plan freskoa egin gura duenak horretarako aukera ederra dauka Garain. Eskualdeko bertso eskolak emanaldi berri

bat egingo du. 'Durangaldea uztabarritzen' bertso zirkuituaren barruan, Maialen Lujanbio, Erika Lagoma, Eneko Abasolo 'Abarkas', Aritz Katarain eta Manex Agirre bertsolariak Garaiko probalekuan arituko dira bertsotan,

20:00etan. Gai-jartzaile lanetan, anfitrioiak izango dute lagun, Iruri Altzerreka bertsolari garaitarra. Eguraldiak okerrera egin eta eurira joko balu, saioa frontoi barruan egingo dute. *Durangaldea uztabarritzen* bertso zirkuituak apirilean ekin zion bere ibilbideari. Denbora tarte honetan, Etxanon, Otxandion, Elorrion, Iurretan eta Durangon eskaini dituzte saioak. Garaiko hau zirkuituko azkena izango da.



Maiatzaren 8an Durangoko Benita Uribarrena parkean egindako bertso saioa.

DIBA

K O O P E R A T I B A

Durangaldeko
Baserritarren
Elkartea

Murueta, 6 ABADIÑO - Tel.: 94 681 87 92



Mañariko erdigunean
taberna alokatzen da!
Erreformatu berri

Tlf.: 629 227 220

ANBOTOK Anbotokide kanpaina aurkeztuko du maiatzaren 28an

Datorren astetik aurrera, bere komunitatea indartzeko ekimena martxan ipiniko du



Aurkezpena Benita Uribarrena parkean izango da.

DURANGALDEA • JOSEBA DERTEANO

Zero kilometroa esparru guztietara zabaldu guran, ANBOTOk Anbotokide kanpaina ipiniko du martxan. Komunitatea indartu eta sinergiak sortzea da kanpainaren helburua. Maiatzaren 28an, ekimena martxan ipintzeko aurkezpena egingo dute, Benita Uribarrena parkean. "Anbotokide izatea ANBOTOren komunitatearen parte izatea da, euskararen erabilera sustatzea eta herri-eragilearen aktibazioan pausoak ematea", azaldu du Jone Guenetxea ANBOTOk zuzendariak. Urte oso-ko kanpaina honetan, norbanako, elkarte, denda eta enpresek tokiko euskarazko komunikazio proiektuagaz bat egitea da helburua. Irakurle, elkarte eta ANBOTOren komunitate guztiari aurkezpenera joateko gonbita egin diete.

Politikan

Mireia Elkoroiribe
Zenikaonandia
EAJ



Koherentzia, bideragarritasuna eta berehalakotasuna

EAJtik behin baino gehiagotan adierazi dugu Durangoko gobernu-taldeak iragarri duen aurreakordioak ez diela erantzuten gure udalerraren egungo eta etorkizuneko beharrei. Hori dela eta, EAJk hilabeteak daramatzagu lanean, Durangok gaur egun dituen eta etorkizunean izango dituen beharrei erantzuteko proiektu bat lortzeko, besteak beste, osasuna, etxebizitza, mugikortasuna eta aisialdia bezalako esparruetan. Beste alderdi politiko batzuek ez bezala, diskurtso koherente bat mantentzen dugu denbora guztian. Hauteskundeetara aurkeztu ginean geneukan berbera. Hau da, altuerak jaitsi, eraikin supramunicipalaren lursaila mantendu eta aurrera egin.

Gure proposamenak Bereizmen handiko osasun-zentro bat aurreikusten du (Gernikakoaren modukoa), ekipamendu estrategiko gisa. 45.000 m²-ko parke publiko handi bat ere, 21.755 m²ko berdeguneak eta kirol- eta aisialdi-instalazioak dituen eta herritarrekin batera diseinatuko litzatekeena partaidetza-prozesu batean. Horretaz gain, oinezkoentzako eta bizikletentzako ibilbideak aurreikusten ditu Durangoko Maila Berdearen ardatzarekiko jarraitutasuna lortzeko. Proiektuan babes ofizialeko 111 etxebizitza (6 solairuko eraikin bat Durangoko udalarentzat) eta 443 etxebizitza libre (10 solairu eta atikodun 5 eraikin) ere jasotzen ditu proiektuak, egungo eta etorkizuneko etxebizitza-beharrei erantzuteko.

Proiektu hau bideragarria da, Durangoko ondareari eusten dio eta urbanizazio-gastu guztiak Eusko Jaurlaritzak ordainduko lituzke. Eta horretaz guztiaz gain, berehalakoa izan daiteke, proiektua errealitate bihurtzeko 10 urte irabazten ditugularik. Egin dezagun aurrera!

Durangaldea asteen

Elorriok sentsibilizazioari eta kirol egokituari buruzko jardunaldia hartuko du zapatuan

ELORRIO | Maiatzaren 21ean, Elorriok sentsibilizazioari eta kirol egokituari buruzko jardunaldia hartuko du. Herritar guztiei zuzenduta egongo den ekimenak 'Plaza Inklusiboa' leloa izango du eta honen helburua kirol jardunbide inklusiboa eta egingarria eskaintzea izango da. Ekimena 10:30etik 13:30era izango da, Herriko Plazan.

Munduko Arrozak jaialdiaren edizio berri bat egingo dute ekainaren 11n, Durangon

DURANGO | Arrozak, kultura guztietan amankomuna den osagai horrek, Durangoko kaleak hartuko ditu migratzaileen eta pertsona arrazalizatuen integrazioa sustatzeko. Jaialdia ekainaren 11n egingo dute, Durangon. Elkarrekin eta taldeek zabalik dute izena emateko epea.

Durangon autobusa antolatu dute 'Euskara Aurrera' manifestaziora joateko

DURANGO | Euskalgintzako eragileek manifestaziora deitu dute maiatzaren 21erako, 17:30ean, Donostian. Mobilizazioa *Euskara Aurrera* lelopean egingo dute eta horregaz atzean utzi gura dute izurriak markaturiko bolada honetan euskararen normalizazioak izandako "atzerapausoa". Durangoko EHEk eta Berbarok autobusa antolatu dute.



Urdangarinek eta Bilbao Orkestra Sinfonikoak elkarrekin ospatuko dituzte urteurrenak

ZORNOTZA | Bilbao Orkestra Sinfonikoak Mikel Urdangarinen abes- tirik esanguratsuenetarikoz batzuk moldatuko ditu, eta, horrez gainera, elkarrekin kontzertu sorta bat emango dute, baita disko bat grabatu ere. Besteak beste, Muxikebarrin, Getxon eta Bilbon eskainiko dituzte kontzertuak; Bizkaiko hiriburuko emanaldia abuztuaren 20an izango da, Aste Nagusian.

Bestalde, Urdangarinek jakinarazi du Orkestragaz eskainiko dituen emanaldiak urteurren birako kontzertuekin uztartuko dituela.

Zure iritzia, gutuna edo fotodenuntzia helarazteko helbideak: Bixente Kapanaga 9, - IURRETA • Izen-abizenak • telefonoa • helbidea • Nortasun Agiriaren zenbakia **DATUOK BARIK EZ DA GUTUNIK ARGITARATUKO** Alderdi, elkarte edo taldeko iritzia kide baten izenean sinatuta eta ANBOTOren irizpideen arabera zuzenduta publikatuko dira. Bidalitako testuak ezingo du 1.500 karaktere baino gehiago izan (tarteak barne).

**Smurfit Kappa**
Central forestal




55 urte
EUSKADIKO
PINUDIAK
ZAITZEN

**Smurfit Kappa**
Nervión





LABIRINTOA



MARGOTU

Amaitu tximeleta margotzen.
Zenbat kolore desberdin
behar dituzu? (Kontuan hartu
zuria beste kolore bat dela)

..... kolore

















Intsektu guztiek euren bikotekidea dute.
Bazara gai denak topatzeko?

BIKOTEAK



ORIGAMI






Jarraitu beheko pausoei eta paperezko tximeleta bat egingo duzu.





ITZALAK

Behean 6 itzal daude.
Zein da alboko
inurriari dagokiona?




ZER IKUSTEN DUZU?

Irten parkera eta marraztu lauki honetan ikusi ahal dituzun intsektu guztiak.



SEGIDARI JARRAITU

Erleak loreen segida honi jarraitu dio beheko
eztia lorteko. Egin bide egokia arkatzagaz.



DIFERENTZIAK

Topatu 7 diferentziak.



LETRA ZOPA



P	H	K	W	Z	I	N	U	R	R	I	A	C	A
J	R	F	E	A	O	U	T	F	S	M	Z	M	C
K	N	M	R	F	U	X	X	F	S	A	T	B	G
O	Q	A	H	H	D	C	I	E	C	R	D	D	T
W	E	T	Y	L	F	K	M	E	K	I	W	J	W
E	U	X	V	S	F	A	E	U	W	G	O	B	G
C	L	I	A	T	Q	R	L	L	Y	O	D	C	K
Z	I	N	P	Z	C	A	E	I	V	R	N	S	I
T	A	S	D	E	V	K	T	A	B	R	Q	A	L
E	V	A	S	C	X	O	A	T	A	I	E	A	K
Z	T	L	Z	F	R	L	V	Z	R	N	R	N	E
M	F	T	W	O	A	A	E	S	E	G	L	H	R
Y	P	O	P	E	N	J	W	P	A	O	E	A	R
F	R	A	V	D	P	T	C	Q	M	A	A	J	A

Bazara gai beheko
intsektu hauek guztiak
topatzeko?

- 1- Matxinsaltoa
- 2- Tximeleta
- 3- Inurria
- 4- Erlea
- 5- Marigorringoa
- 6- Eulia
- 7- Karakola
- 8- Kilkerra
- 9- Barea

DADOA

Dado guztietatik, zein da zuzena?



TOPATU ITZAZU

Beheko irudian topatu itzazu tximeleta guztiak.





'Sacco + Oki Moki'

MUSIKA **ELORRIO :: Maiatzak 20**

Ateneoko kontzertuen itzulera

Pandemiak eragindako etenal-diaren ondoren, AteneON kontzertu sorta bueltatu da. Apirilean Onki Xinek ekin zion denboraldi berriari, eta bigarren emanaldiko protagonistak Sacco eta Oki Moki izango dira. Sacco hirukoteak post-hardcore doinuak jorratzen ditu eta *Basa* diskoa aurkeztuko du; zortzi urteren ondoren kaleratu dute euren bigarren lana, hau ere Bidehuts zigiluagaz.

Gaueko bigarren taldea Oki Moki gipuzkoarrak izango dira. Paula Estevezek eta Aritz Aran-

buruk osatzen dute taldea (orain hirukotea dira). Post punk itsas-korra eta garage doinuak nagusitzen dira euren lehenengo lanean; *Working Class Pop* debuteko lana Flexi Discoc zigilu valentziarraz kaleratu zuten, 2020an.

Kontzertua 22:30ean hasiko da eta sarrera zortzi euroan salduko dute [kontsumizio bat barne]. Denboraldiko hirugarren kontzertua hurrengo zapatuan izango da, maiatzaren 28an. Han elorriarrek bigarren diskoa aurkeztuko dute bertan, Giente gas-teiztarrekin.

Maiatzaren 20an

ABADIÑO santrokazak
Disko Txikia: Dj Porru,
18:00etan, Txanporta plazan.
Kantu bat gara (Jon Maia),
22:00etan, Ferialeku plazan.

ELORRIO musika
Sacco + Oki Moki, 22:30ean,
Ateneoan.

IURRETA antzerkia
‘Rebelión en la granja’
(Alopargo), 19:00etan,
Ibarretxe kultur etxean.

MAÑARIA dokumentala
‘Tipularen sehaska kanta’
dokumentala, 19:00etan,
liburutegi zaharrean.

ZALDIBAR jaialdia
Elkartasun kontzertuak:
Liher + Zeker + Gora
etorri + Dj Pary and Tiza,
20:00etan, Zaldibarko
Gaztetxean.

Maiatzaren 21ean

ABADIÑO santrokazak
Umeentzako jolasak
frontoian, eta **gazteentzako**
emozio parkea eliza aurrean
(11:00-14:00/16:00-19:00)
Kalejira: Otxote Muñatones,
12:00etan.
Paella Erraldoia, 14:30ean,
Ferialeku plazan.
Orkestra
elektrotxarangagaz kalejira,
18:30ean.
Dupla + Bulego + Skaiketan,
21:30ean, Txanporta plazan.

BERRIZ ikuskizuna
‘Fresa y chocolate’ (Alberto
Alfaro & Teatro de la
Entrega), 19:00etan, Berrizko
Kultur Etxean.

GARAI bertso jaialdia
Durangaldea Uztabarritzen
bertso zirkuitua: Maialen
Lujanbio, Erika Lagoma,
Eneko Abasolo ‘Abarkas’,
Manex Agirre eta Aritz
Katarain, 20:00etan,
probalekuan. Gai jartzailea:
Iruri Altzerreka.

MAÑARIA zirkua
Zirkobira, 17:30ean, herriko
plazan.

ZORNOTZA jardunaldia
Ume eta gazteentzako
ekintzak, 16:00etan, Zelaieta
zentroko ludotekan.
Gauero ginkana, 20:00etan,
Gaztetxeokan. Amorebietako
Konbenioaren 150.
urteurrena.

ZORNOTZA antzerkia
‘La paz estéril’ (Tartean),
20:00etan, Zornotza Aretoan.
Amorebietako Konbenioaren
150. urteurrenerako sorturiko
antzezlan.

Maiatzaren 22an

ABADIÑO santrokazak
Artisautza Azoka,
11:00etan, Txanporta plazan.
Abadiñoako emakume artisau-
sortzaileak.
Tailerrak 11:30etik
14:00etara, Ferialeku plazan
(6tik 10 urtera artekoentzat).

Kalejira eta dantzaldia
Talde Batuak dantza taldeko
umeeekin eta Txanbolin taldeko
txistulariekin, 18:00etan,
Txanporta plazan.
Txokolatada, 19:00etan.
Gerbasi agurra, 20:00etan.

ABADIÑO musika
Víctimas Club, 13:30ean,
Muntsaratz Auzoko 36an.
Ondoren, pintxada. Amaraun
Arte Fabrika.

MAÑARIA azoka
Azoka 10:00etan, herriko
plazan.

Maiatzaren 23an

ZALDIBAR berbaldia
‘Familia eredu berriak
eta sexu aniztasuna’
berbaldia, 18:00etan,
liburutegi zaharrean. ALDARTE
elkartegaz antolatuturiko
informazio saioa.

ZORNOTZA antzerkia
‘Bake lehorra’ (Tartean),
20:00etan, Zornotza Aretoan.
Amorebietako Konbenioaren
150. urteurrenerako sorturiko
antzezlan.

Maiatzaren 24an

ZORNOTZA musika
Behotsik Orkestra,
20:00etan, Zornotza Aretoan.
Amorebietako Konbenioaren
150. urteurrena.

ANBOTOk agendan ezer iragarri
gura baduzu, idatzi **agenda@anboto.org** helbidera edo
deitu **946 232 523** telefonora, eguazten eguerdia baino lehen.

Zinema

:: Berriz
KULTUR ETXEA

• **Ámame**
barikua 20: 19:30
domeka 22: 19:00

:: Durango
ZUGAZA ZINEMA

• **El saetre de la mafia**
barikua 20: 19:30
zapatua 21: 18:00 /20:30
domeka 22: 17:00 /19:30
astelehena 23: 18:00/20:15
martitena 24: 18:00/20:15
eguztana 25: 19:30

• **El arma del engaño**
barikua 20: 19:30
zapatua 21: 18:00 /20:30
domeka 22: 17:00 /19:30
astelehena 23: 19:00
martitena 24: 19:00
eguztana 25: 19:30

• **Cinco lobitos**
barikua 20: 19:30
zapatua 21: 18:00/20:30
domeka 22: 17:00/19:30
astelehena 23: 18:00/20:15
martitena 24: 18:00/20:15
eguztana 25: 19:30

• **Maigret**
eguztana 26: 19:00

:: Elorrio
ARRIOLA ANTZOKIA

• **Alcarrás**
zapatua 21: 20:00
domeka 22: 20:00
astelehena 23: 20:00

:: Zornotza
ZORNOTZA ARETOA


• **París, distrito 13**
barikua 20: 20:00
domeka 22: 20:00

• **Ama Mu** **etxera itzuli da**
domeka 22: 17:00



merkataritza gida sarean

anboto.org/gida



***Ezagutu eta erabili Durangaldeko
merkataritza gida euskaraz eta sarean!***

Merkataritza gidan parte hartzeko deitu: 946 217 902

Argazkiak - Datuak - Kokapena

(urtean 50€)

“Matematika entzuteak beldurra eragin dezake, baina, funtsean, matematika ardatz duen eleberri bat da”

Gaizka Zabarte eta Ane Oliverosek 'Osaba Petros eta Goldbachen aierua' eleberri ezaguna euskaratu dute; Denonartean argitaletxeagaz publikatu dute



Gaizka Zabarte eta Ane Oliveros.

LITERATURA • ARITZ MALDONADO

Gaizka Zabarte zaldibartarrak eta Ane Oliverosek Apostolos Doxiadis-en 'Osaba Petros eta Goldbachen aierua' bestsellerra euskaratu dute. Petros Papachristos matematikariaren eta haren ilobaren arteko hartu-eman da istorioaren zutabe-tariko bat. Bestea, “ezinbestekoa”, matematika. Zenbakien Teoria, eliteko matematikarien arteko lehia eta XX. mendeko Europa dira 40 hizkuntza baino gehiagotara itzuli den eleberriaren beste osagaietariko batzuk.

Nolatan euskaratu duzue eleberria?

Gaizka Zabarte: Horren bila joan barik, liburu-denda batean topatu nuen; erosi, irakurri eta atentzioa deitu zidan, eta Aneri pasatu nion. Ane matematikaria da, eta esan zidan: "Hau itzuli egin behar da" **Ane Oliveros:** 2018 bueltan izan zen hau. Zientziak, orokorrean, geroago eta dibulgazio gehiago du, eta horixe da, hain zuzen ere,

zientziaren zailtasunetarikoa bat, jende arruntarengana hurbiltzea. Matematikak ia ez du lekurik literaturan, eta are gutxiago euskaraz. Horixe gura genuen; hau itzuliz gero, euskarak dibulgazio gehiago luke, eta, gainera, hobe nobela izanda.

“Matematikaren teorema batzuk agertzen dira; hori matematikarion ikuspuntutik ederra da”

G. Z.: Eleberri bat da hau, baina istorioaren ardatza matematikak dira. Zenbakien teoria, hain zuzen ere. Horrek hizkuntza aldetik ere berme bat eskatzen du, horregaitik jo genuen Iralerengana [Hezkuntza Sailaren programa bat da]. Gainera, matematikak

esanda, jende batek atzera egin dezake, gaiak beldurtu lezake.

Matematikazaleentzako liburu bat da?

G. Z.: Beste ikuspuntu batetik begiratu behar da. Gazte bat da eleberriko protagonista. Osaba misteriotso samar bat duela deskubritzen du, eliteko matematikaria izandakoa; bizi osoa Goldbachen aierua frogatu guran ibili da osaba. XX. mendeko beste matematikari garrantzitsu batzuk ere agertzen dira, eta zenbakiek beren pisua duten arren nobela bat da, iloba-osaben arteko hartu-eman ardatz duena.

A. O.: Arrakasta izan badu, ez da matematikaren tratadu bat izan delako. Baina matematikaren teorema garrantzitsu batzuk agertzen dira, eta hori matematikari baten ikuspuntutik ederra da. Baina ez da bakarrik guretzat.

Matematikariak islatuak agertu gaitzake, baina bestelako irakurleentzat ere erakargarria izan daiteke; iloba-osaben arteko tirabirak,

ikerkuntza eta bakardadea dira istorioeko gaietariko batzuk.

G. Z.: Zenbakiek beti sortu dute lilura bat, baita zientziazaleak ez diren inguruetan ere, eta liburuan ere ageri da lilura hori. Papakristos osaba oso urrun heltzen da dedikazio horretan, itsutzeraino. Eta, tes-

“Zenbakiek beti sortu dute lilura bat, baita zientziazaleak ez diren inguruetan ere, eta liburuan ere ageri da lilura hori”

tinguruan, hogeigarren mendeko oso gertaera garrantzitsuak daude, izan ere, protagonista Greziatik Munichera (Alemania), Austriara eta Cambridgera doa; garai hartako Europaren lekukotza bat da, Bigarren Mundu Gerra aurrekoak, ostekoak eta Greziako diktadura

bera ere bizi dituzte protagonistek. Nik ez dut preparaziorik matematiketarako, baina interesa sortzen didate. Eta honek erakusten du ez dela behar ezelako mailarik liburu hau irakurtzeko. Hori bai, matematikari buruz ikasteko arriskua du liburu honek (barrez).

A. O.: Matematikak ez dira zerbait homogeneoa, espezialitate asko dago, eta zenbakien teoria da horietarikoa bat. Hortik jotzen du liburuak. Teorialari batzuk agertzen dira eleberrian, eta horien lan tresna zenbaki lehenak dira. Zenbaki lehenak oso erabiliak dira, adibidez, mezuak enkriptatzeko, eta hori oso baliagarria da, gerretan adibidez. Pentsa gaur egun zelako eragina duten, adibidez.

Zein izan da erronkarik handiena?

G. Z.: Itzulpengintza zelako mundu konplexua den konturatu gara. Erabaki behar da berba bat kendu edo ipini, esamolde bakoitza... Testuari fidela izan behar zaio, baina euskarara ere ondo ekarri behar da, eta jendearengana ere heldu egin behar da. Gogotsu eta denbora mugarik barik hartu genuen lana. Kasu honetan, gainera, matematikari ez jakitea ere oztopo handia litzateke [itzulpenerako].

A. O.: Erraz irakurtzen dela esan digute, baita euskara aldetik ere. Gaztelaniazkoa, frantsesezkoa eta ingelesezkoa aztertu ditugu lehenengo, eta ostean egin dugu euskarazkoa. Oso lan konplexua da, baina ederra. Kontuan hartu behar duzu ez bakarrik idazleak zer esan gura izan duen; hizkuntza batetik bestera egiterakoan, egitura bera aldatu egiten da. Niri asko gustatu zait. Are gehiago matematikaria izanda, buruketa bat ebatzi behar duzunean bezala, esango nuke itzulpegintzak ere baduela hortik zerbait.

Denonarteanegaz argitaratu duzue.

G. Z.: Irailen baldintzetariko bat liburu publikatzea zen, zeregin hori gero gure esku geratzen zen arren. Gure kabuz topatu genuen Denonartean, eta oso pozik gaude.

A. O.: Unai Pascual izan zen editorea. Telefono dei bat baino ez genuen egin behar izan; berak ere matematikarekiko lilura agertu zuen. Argitaletxe txikia izan arren, oso ausarta iruditu zitzaigun, eta merkatu txiki bat izango duelakoan gaude. Horrez gainera, gustatuko litzaziguke irakurle taldeetan, institutu edo unibertsitateetan aurkezpenak egin ahal izatea. Uste dugu interesgarria litzatekeela.



Aitor Fernandino eta Mikel Losada dira protagonistak.

Tartean konpainiak Amorebietako Konbenioari buruzko lana sortu du

'Bake lehorra' deitzen da hitzarmenaren 150. urteurrena ospatzeko sortu duten lana

ANTZERKIA • ARITZ MALDONADO

Mikel Losadak eta Aitor Fernandino denboran 150 urteko jauziagaz atzera egin, eta lau egoera desberdin planteatuko dituzte. Aldi berean gertatzen diren egoerak dira laurak, une jakin baten bueltan: Amorebietako Konbenioaren sinadura. Azken karlistaldia geldiarazteko helburua duen hitzarmena sinatzear daude. Gauzak horrela, lau geruzako obra egin dute. "Ardura politiko edo militarrik gehien dutenek gutxiago sufritzen dutela uste dugu, horixe da lanean planteatzen dugun kontzeptua", azaldu du

Patxo Telleria zuzendariak. Obra "ahalik eta errealena" izatea zen Zornotzako Udalaren helburua, Andoni Agirrebeitia alkatearen berbetan. Tartean antzerki taldeak udalaren enkarguz sortu du lana. Euskarazko estreinua maiatzaren 23an egingo dute, Zornotza Aretxean. Gaztelaniazko emanaldia 21ean izango da, zapatu honetan.

Emanaldi berriak lotzen

Amorebietako Akordioaren 150. urteurrena gogoratzeko asmoagaz sortu dute *Bake lehorra*; hala ere, Ukrainako gerraren testu-

guruagaz antzezlanak "dimentsio berri bat" hartu duela uste du Telleriak: "Gerraren eta bakearen arteko oreka ahula nabarmendu gura dugu lanean, izan ere, esan daiteke gizakiak denbora tarte luzeagoak ematen dituela gerran bakean baino". Hasieran lana Zornotzan bakarrik erakusteko helburuagaz sortu bazuten ere, lanaren emaitza ikusita beste emanaldi batzuk lotzeko lanetan dabil Tartean. "Gustatu dela esan digute, eta zirkuituan sartzen ahaleginduko gara", esan du Telleriak.

Hitzez eta Ahotsezen irakurraldia, ekainaren 10ean

Ekainaren 10ean egingo dute irakurraldi girotua, Benita Uribarrena parkean (euria eginez gero, San Agustinen)

HITZETZ ET AHOETZ • A. M.

Pandemiak eragindako etenaldia- ren ondoren, Hitzez eta Ahotsez egitasmoa hiru ekitaldigaz bueltatu da. Egitasmoa ekitaldirik jendetsuena, irakurraldi girotua, ekainaren 10ean egingo dute aurten, eta zabaldu dute jada izena emateko epea. Lau multzotan banatu dute apuntatzeko tartea, orduka; 17:00etan hasiko da irakurraldia, eta 21:00ak arte iraungo du. Benita Uribarrena parkean izango da ekitaldia. Eu-

ria eginez gero, San Agustin kulturgunera lekualdatuko dute. Hitzez eta Ahotsezeko lehenengo ekitaldia maiatzaren 13an izan zen. Bertan, Leire Bilbaok poesia irakurraldia eskaini zuen, Bizenta Mogel bibliotekan. Hurrengo hitzordua maiatzaren 28an izango da. Joseba Sarrionandiak berbaldia eskainiko du Durangoko Arte eta Historia museoa. Aurtengo kartelaren egilea Imanol Larrinaga izan da.



Imanol Larrinaga da aurtengo kartelaren egilea.

Gai librean

Behin-betikotasuna behin betiko bihurtzen denean

Noiz aukeratu genuen nomadismo arraro hau? Noiztik da postmoderno, eta ez prekariora, alde batetik bestera, norabide jakin gabe eta baldintza duin gabe ibiltzearen kontua? Nahastuta nagoela uste dut. 32 urteko lagun batek 15 lan izan dituela esan zidan atzo; beste batek 25 urtetan 10 etxetan hustu eta berregin dituela maletak; nik 10 herrialdetik gora bisitatu ditut gaztaroan eta azken denboraldian hegazkin bat hartu dut hileko. Zoratzeko bestekoa.

Agian orain hegazkinean nagoelako pentsatzen dut etengabe gauzak gainean eramatearen zama honetan, dena airean dagoen sentsazioa areagotzen zait. Badirudi aukeratu egin dutela nire lagunak eraikin eta lanpostu askotan egotea, haien hautu ausart eta bizizalea dela, etengabe gauza berriak aurkitzeko



Eider Chaves Gallastegui
Irakaslea

Noiztik da postmoderno, eta ez prekariora, alde batetik bestera, norabide jakin gabe eta baldintza duin gabe ibiltzearen kontua?

jaio garen belaunaldia izango bagina bezala. Batzuetan uste dut produktu hori ondo saldu zidatela niri aspaldi, eta sinistu nuela bidaia konstantea zela nire askatasuna.

Nekatuta nago behin behinekotasunaz, hori delako behin betikoa bihurtu den egia bakarra: behin eta berriro agurtzeaz, nire burua aurkezteaz, lekuan lekuko arauak ikasteaz, hurrengo ikasturtea urtero errepikatzen den amildegia izateaz, egunerokotasunean hiru hizkuntzatan aritzeaz, munduko beste puntara joateko beharra sentitzeaz,

beste gabe hemendik urruntzeko, lagunekin afaltzea luxua dela pentsatzeaz. Nekatu naiz ezegonkortasun emozional honetan bizitzeaz.

Postmodernitatea kolonialismo findu bat dela esango banu, ez dakit zehazki zer esaten ariko nintzatekeen. Sentsazioa daukat jarraitzen dugula konkistatzen, izan gorputzak, zapoak, jantziak edo paisaiak. Betiereko bat beharrean, behin-behineko hamaika. Jarraitzen dugula hara eta hona joaten, azkar, estimulu agorrezinetan. Kontua da orain denak duela usain abenturazale bat, leku pribilegiatu bat sare sozialetan. Denak dauka erromantizismo kutsu bat, baina azken finean, kaos erakargarri honen atzean dagoena ezegonkortasuna da, eta ziurtasun falta, eta gorputzen kartzela (kartzela planeta osora zabaldu bada ere).

Baina hau ideia bat baino ez da. Nekatuegi nago.

Zaldibarko Zaldia Kirol Elkartea ekitaldi sorta aurkeztu du sortu zeneko 50. urteurrena ospatzeko

Logotipo lehiaketa, herri bazkaria, kluba sortu zutenei omenaldia... dira astean aurkeztu dituzten ekimenetariko batzuk

FUTBOLA • J. DERTEANO

Zaldia Kirol Elkartea 1973an sortu zuten eta 50 urte beteko ditu datorren urtean. Batzorde bat beren beregi urteurrena ospatzeko ekintzak antolatzen dabil aspalditik eta astean prentsaurrekoa eskaini dute horren berri emateko. Herri osora zabalduko duten jaia izango da eta ez da gutxiagorako, 3.000 biztanleko herrian 1.000 bazkide inguru dituzte eta. "Herrian gogor erroturiko elkartea da", adierazi zuen batzordeko kidea den Victor Maestrok martitzeneko aurkezpenean.

Zaldia Kirol Elkartea lau adarrek osatzen dute: futbol, saskibaloia, mendi eta pilota taldeek. Urteurrenako ekimen batzuk denek denentzat egindakoak izango dira eta beste batzuk taldeka banatuko dituzte.



Zalduko Victor Maestro, Mikel Garcia, Enrike Agirrebeitia, Jabi Sierra, Mikel Arrizabalaga eta Arkaitz Padilla asteleheneko aurkezpenean.

Sortzaileei omenaldia

Zaldia futbol klubak 1973ko irailan jokatu zuen bere historiako lehenengo partidua, Arratia taldearen kontra. Data hori gogoratuz, irailean, Zalduak eta Arratiak elkarren kontra jokatu dute denboraldiaurreko azken lagunartekoa. Partidu horren atarian, klubeko sortzaileak omenduko dituzte. Egun berean, Zaldia klubeko ereserki eguneratua ere aurkeztuko dute.

Logotipo lehiaketa

Klubak lehiaketa bat hasiko du datorren denboraldian zehar urteurrena islatuko duen logotipo berria aukeratzeko. Edonork parte hartu dezake. Hiru kategoriatan daude: orokorra, 18 urtetik beherakoa eta Zaldibarko logotiporik onena. Proposamenak honako helbide elektronikora bidali daitezke, ekainaren 20ra arte: concursocincuentenario@gmail.com.

3.000 biztanleko herrian ia 1.000 bazkide dituzte Zaldia elkarteko lau adarren artean

Proposamen guztiak ekainaren 24an eta 25ean erakutsiko dituzte, liburutegi zaharrean. Azken erabakia bazkideen esku dago. 12 urtetik gorako bazkideek logotiporik gogokoenaren alde bozkatu ahal

izango dute egun bi horietan. Irabazle nagusiak 300 euro irabaziko ditu; beste maila bietako saria 100 eurokoa da.

Urteurrenako beste osagai bat datorren urteko maiatz-ekain ingururako aurreikusita dagoen herri bazkaria da. Argazki zaharren erakusketa bat ere antolatuko dute. Ekimen gehiago ere egongo direla eta antolatu ahala iragarriko dituztela azaldu zuten martitzeneko prentsaurrekoan.

1973tik 78ra; bost urteko prozesua lau buruko elkartea sortzeko

Zaldia Kirol Elkartea lau kirol adarrek osatzen dute gaur egun: futbol, saskibaloia, pilota eta mendi taldeek. Baina hasieran ez zen horrela izan. Lehenengo, futbol kluba sortu zuten, 1973an. Handik gutxira, pilota eta mendi taldeak batu ziren. Ordura arte, koru elkartetik kudeatzen zituzten. Elkartea 1978an hartu zuen gaur egungo itxura, saskibaloia taldea sortu zenean.

Harrezkero, elkarregaz egin dute bidea eta hazten joan dira. Futbol klubak 11 talde ditu gaur egun, eta saskibaloikoak bost. Pilota taldean harrobia lantzen dute batez ere, eta mendi taldean geroago eta ekimen gehiago antolatzen dute.

Bueltan datozen ekimenak

Bestalde, COVIDaren ondorioz bertan behera geratutako hainbat ekimen berriro antolatuko dituzte. Esaterako, 30. futbito maratonia uztailaren 1etik 3ra egingo dute; 3X3ko saskibaloia txapelketa uztailaren 9an egingo dute, 16:00etan, kiroldegian, eta 43. mendi martxa uztailaren 16an. 07:00etan irtengo da, Zaldia plazatik.

Jokaldia

Une historikoa zatekeena... amesgaizto!

Aurreko zutabean esan banuen ere 24 urte itxaron behar izan dute Munduko Kopan berriz aritzeko, une historikoa izan zitekeena amesgaizto bihurtu da batzuek egindako iruzurratik. Esaera zaharrak dio "Gizakia harri beraz bi aldiz estropezu egiten duen animalia bakarra da" eta oraingoan bete da. Munduko Koparako sailkapen fasean bidegabeko hamabostekoan Gavin Van de Berg jokalaria zelairatzeagatik Munduko Kopatik kanporatua izan da Espainiako selekzioa.

Errugbia maite dugunontzat sekulako kolpea izan da, ez bakarrik nazioarteko lehiaketa handienetik kanporatuak izateagatik. Gogorrena edo tristeena da ardura dutenek oraingoan ere mailarik ez dutela eman, eta momentuz inork ez



Gotzon Gomez Barrenetxea
Errugbia

Tristeena da ardura dutenek oraingoan ere ez dutela maila eman eta momentuz inork ez duela bere gain hartu akatsa

Beraz, argi dago kontu, jarrera eta pertsona ugari aldatu behar ditugula errugbian

duela bere gain hartu egindako akats erraldoia. Kaltetu handienak, dudarik gabe, zelaian txartela irabazi duten jokalariek izan dira. Lau urte luzez topera aritu dira, ametsa errealitate bihurtzeko, baina bulegoetan egindako hanka sartzeak Munduko Kopatik at utzi ditu.

Arduragabekeriak kolokan jartzen ditu beste hainbat kontu; alde batetik

errugbiaren sinesgarritasuna, hau da, komunikabideetan zaila bada berez agertzea, errugbiaren inguruko berriak halakoak badira jai daukagu; bestetik errugbiak zeraman hazkundera, azken urteetan talde berriak sortu eta jokalarien fitxak ugaltu dira, ikusgarritasuna lortzen ari zen, etorkizunari begira gertatutakoak ez dio mesede handirik egingo. Beraz, argi dago kontu, jarrera eta pertsona ugari aldatu behar ditugula errugbian.

Gazi zaporea aldatzeko, larunbat honetan, maiatzak 21, Madrilgo Wanda Metropolitano Estadioan aurreneko aldiz Zeelanda Berriko Classic All Blacks taldea jasoko du Espainiako selekzioak. Pandemia zela eta, partida hau bi urtez atzeratu behar izan dute. Ikuskizuna ederra izan daiteke, eta errugbizaleak asetzeko aukera paregabea. Sapuzaharrrak bertan egongo gara!



Jairik jai!


Abadiño San Trokaz





Gure aukerak,
zuretzat onenak!

Saldu, erosi, trukatu, oparitu... EUSKARAZ!



Eskelak jartzeko: 946 816 558
edo anboto@anboto.org

Eskela mota guztiak

- Anboto paperean + anboto.org-n: 100€ (Anboto txartela dutenentzat 90€)
- Paperean: 60€ (Anboto txartela dutenentzat 50€)
- Webgunean: 60€ (Anboto txartela dutenentzat 50€)

Botikak

BARIKUA, 20 · 09:00-09:00	IRUARRIZAGA, KARMELE SAN MIGUEL 15 - ZORNOTZA
GAZTELUMENDI J.A. ABASOLO 2 - DURANGO	09:00-22:00
SARASKETA, DIEGO LUIS URRENGOETXEA 5 - ZORNOTZA	SARASKETA, DIEGO LUIS URRENGOETXEA 5 - ZORNOTZA
09:00-22:00	ASTELEHENA, 23 · 09:00-09:00
SANCHEZ, MIREN ITZIAR URBITARTE POLIGONOA, 4 P8 - ABADIÑO	DE DIEGO INTXAURRONDO 22 - DURANGO
IRUARRIZAGA, KARMELE SAN MIGUEL 15 - ZORNOTZA	IRUARRIZAGA, KARMELE SAN MIGUEL 15 - ZORNOTZA
ZAPATUA, 21 · 09:00-09:00	09:00-22:00
IRIGOIEN, BIXENTE KAPANAGA 3 - IURRETA	SANCHEZ, MIREN ITZIAR URBITARTE POLIGONOA, 4 P8 - ABADIÑO
IRUARRIZAGA, KARMELE SAN MIGUEL 15 - ZORNOTZA	SARASKETA, DIEGO LUIS URRENGOETXEA 5 - ZORNOTZA
09:00-13:30	MARTITZENA, 24 · 09:00-09:00
BAZAN DIAZ, URIBARRI 5 - DURANGO	SAGASTIZABAL ASKATASUN ETORB. 19 - DURANGO
NAVARRO, ARTEKALEA 6 - DURANGO	IRUARRIZAGA, KARMELE SAN MIGUEL 15 - ZORNOTZA
SARRIA, SASIKOA 17 - DURANGO	09:00-22:00
DE DIEGO, INTXAURRONDO 22 - DURANGO	SANCHEZ, MIREN ITZIAR URBITARTE POLIGONOA, 4 P8 - ABADIÑO
BALENCIAGA, EZKURDI PLAZA 8 - DURANGO	SARASKETA, DIEGO LUIS URRENGOETXEA 5 - ZORNOTZA
CAMPILLO, MONTEVIDEO ETORB. 24 - DURANGO	EGUAZTENA, 25 09:00-09:00
GAZTELUMENDI J.A. ABASOLO 2 - DURANGO	MUGICA ANDRA MARIA 9 - DURANGO
UNAMUNZAGA, MURUETATORRE 2C - DURANGO	IRUARRIZAGA, KARMELE SAN MIGUEL 15 - ZORNOTZA
JAIO-ABENDIBAR, ERREKAKALE 6 ELORRIO	09:00-22:00
FARMAZIA MATIENA, TRAÑABARREN 15 - ABADIÑO	SANCHEZ, MIREN ITZIAR URBITARTE POLIGONOA, 4 P8 - ABADIÑO
GUTIERREZ, IBAN TXIKI OTAEGI 3 - ZORNOTZA	SARASKETA, DIEGO LUIS URRENGOETXEA 5 - ZORNOTZA
RUIZ, JUAN EL ALTO-BIDE ZAHAR 14 - ZORNOTZA	EGUENA, 26 · 09:00-09:00
MELERO, ROSA MARI SAN PEDRO 31 - ZORNOTZA	BALENCIAGA, EZKURDI PLAZA 8 - DURANGO
09:00-22:00	IRUARRIZAGA, KARMELE SAN MIGUEL 15 - ZORNOTZA
SANCHEZ, MIREN ITZIAR URBITARTE POLIGONOA, 4 P8 - ABADIÑO	09:00-22:00
SARASKETA, DIEGO LUIS URRENGOETXEA 5 - ZORNOTZA	SANCHEZ, MIREN ITZIAR URBITARTE POLIGONOA, 4 P8 - ABADIÑO
DOMEKA, 22 · 09:00-09:00	SARASKETA, DIEGO LUIS URRENGOETXEA 5 - ZORNOTZA
BAZAN DIAZ, URIBARRI 5 - DURANGO	

Zorion Agurrak

ZORIONAK@ANBOTO.ORG · EGUAZTENeko 14:00AK ARTEKO EPEA

GOZATU GOZOTEGI-OKINDEGIA

Zorionak, **Garazi (892. alea)**!
Hamabostean behin zotz egiten dugun tarta zuri egokitu zaizu. Oparia eskuratzeko txartela gura duzunean jaso dezakezu lurretako gure egoitzan: Bixente Kapanaga, 9an.

Ermodo, 11. DURANGO
Tel.: 946 201 663
gozatudurango@gmail.com
facebook: Gozatu Gozotegia

Zorionak, **Mario**! Maiatzaren 20an 4 urte egingo dauz gure mutiltxoak. Muxu potolo bat Oihan, Haizea eta Izarren partez.

Zorionak, **Ekhitxu**! Moxu handi piloa familia osoaren partez! Maite zaitugu!

Maiatzaren 24an, bederatzi belarri tirekada eta bederatzi mosu handi! Ondo pasau zure egunien eta ospakizun ezberdinetan. Besarkada handi bat maite zaitugun danon partez.

Eguraldia

ZAPATUA 📉 34° / 13° ☁	ASTELEHENA 📉 19° / 13° 🌧	EGUAZTENA 📉 20° / 12° 🌧
DOMEKA 📉 32° / 17° 🌧	MARTITZENA 📉 20° / 12° 🌧	EGUENA 📉 24° / 11° 🌤

hitz

liburudenda

artekalea 23, durango
946 810 776
info@hitzliburudenda.com

#salduenak

BASA
Miren Amuriza (Elkar)

M, AMA, EME, UME
Erika Lagoma / Estitxu Fernandez (Elkar)

EZ ERRAN INORI
Maddi Ane Txoperena (Elkar)

ERAIKUNTZARAKO MATERIALA
Eider Rodriguez (Susa)

DENA AMETSA DEN IRUDIPENA
Leire Vargas (Elkar)

"Inauguraziora jendetza etorri zen eta jenerorik barik geratu ginen"

Tania Cifuentesek San Faustoko frontoi ondoko taberna zabaldu du: Ambigu. Irekiera jendetsuaren ondoren nekatuta dago, baina pozik negozio berriak izan duen harreragaz



**Tania Cifuentes
Cano**

Ambigu

DURANGO | 1986

DURANGO • JONE GUENETXEA

San Faustoko Ambigu taberna goizetako martxa hartzen dabil. Kafe makinaren zarata, pintxo usaina... San Faustoko frontoiko taberna barikuan zabaldu zuenetik, Tania Cifuentesek ez du atsedetik hartu. Ostalari batentzat seinale ona da hori.

Joan zen barikuan zabaldu zenuen taberna. Inaugurazioak zelako harrera izan zuen?

Jendetza etorri zen barikuko inauguraziora, auzotik eta baita Durangoko beste leku batzuetatik ere. Lanez gainezka ibili ginen, edalontziak garbitzen,

sukaldean... Jenerorik barik geratu ginen. Jendea etortzea espero nuen, baina ez hainbeste. 23:30era arte hau guztia beteta zegoen. Afariak ere eskatu zizkidaten, baina ezin izan nuen. Garagardo upelik barik geratu nintzen eta gehiago eskatu behar izan nuen. Hiru upel edan zituzten hiru orduan. Hori Bilboko jaietan ere ez dut ikusi.

Eta asteburuan zer moduz?

Berdin. Asteburuan 08:00etan zabalik izan dugu eta zapatuan goizaldean zarratu genuen, 02:30ean. 01:00etan terraza zarratu nuen eta baimena dut taberna 02:30era arte zabaltzeko.

Asteazken 06:00etan zabaltzen dugu. Ni 05:00etan etortzen naiz, pintxoak prestatzera

Auzoko jendea geratu zen ordu horretara arte.

Itxaroten zenuen hain harrera ona izatea?

Beste tabernetan lez izatea espero nuen. Apurka-apurka bezeroak etortzen hastea. Harrera oso ona izan da. Pozik eta nekatuta nago.

Zelan animatu zinen taberna hau hartzera?

Orain bost urte San Faustora bizitzera etorri nintzen. Aurreko errenteruak utzi egin zuen eta nik interesa nuen. Ezin izan nuen alokatu, udalak obra egin gura zuen eta. Ikusi nuen inguru egokia zela taberna bat zabaltzeko eta parkea ondoan duela. Gainera, ume txiki bat dudanez semea zaindu eta lan egin dezaket aldi berean. Konfinamendua heldu zen eta gauzak atzeratu egin ziren. Beste taberna bat dudanez, lizitazioa irten zenean animatu egin nintzen.

Ostalaritzan inorentzat lan egitea gogorra da, baina negozioa zeurea bada ordu asko izan arren onuragarriagoa da

Beste taberna bat duzula diozu. Non?

Hemen ondoan, auzoan bertan. Degustación San Fausto legez eza gutzen da. Taberna hori ere konfinamendu ostean hartu nuen, joan zen ekainean. Sasoi batean taberna honetan egongo naiz zein beharizan dituen ikusteko. Gero, bestean ere egongo naiz.

Ostalaritzakoa lanbide gogorra da. Noiztik zabilta tabernan lanean?

16 urte gaz hasi nintzen. Askok gus-tatzen zait. Orain esan dezaket gura dudala nik neuk zabalduriko tabernan lan egitea inoren tabernan baino. Ostalaritzan inorentzat lan egitea gogorra da, baina negozioa zeurea bada ordu asko izan arren onuragarriagoa da.

Taberna hau frontoi ondoan dago. Zein ordutegi izango duzue?

Asteazken 06:00etan zabaltzen dugu. Ni 05:00etan etortzen naiz, pintxoak prestatzera. Bazkariak eta afariak emango ditugu. 23:00ak arte zabalik izan behar dut, ordu horretara arte frontoia zabalik dago eta. Baten batek frontoia alokatzen badu neu arduratzen naiz giltzak eman eta argia pizteaz. Hori bai, alokatzeko tramitea Durangoko Kirolakentzartez egiten da.

Lauhortza

Bixente Aizpurua
Eguren
Jubilatuak/Irakaslea



Emakumea eta baserria

Baserria euskaldunon babes-etxea bada, horren sostengua, zutabe eta ardatz nagusia emakumea izan da eta da.

Bera izan da baserria bizirik mantendu eta mantentzen duena. Urteak atzera eginda hori ikusten ditut amama eta ama, aita fabrikantzen bitartean, etxeko lan guztiei aurre egiten. Ganadua zaintzen, ortua mantentzen, buruan galdara hartu eta errekan arropak garbitzen, esku-gurditxo hartu eta aterik ate eta etxerik etxe esnea bantzen, etxera itzuli eta jatordua prestatzen, sendagilearen lana egiten eta inoiz seme-alabak ahaztu gabe; AMA izaten.

Baina hori ez zen beraien lan neketsua bukatzen, aita fabrikatik bueltatzen zenean behiak uztartu eta hori joaten ziren belarra ekartzen, lurrak lantzen edo udazkenean behie ohe sikua egiteko garoa eta orbelaren bila.

Etxean ikusten nuena inguruko baserrietan errepikatzen zen, gauza bera. Lan handi hori gutxitan aitortu zaio bera izan arren pelikulako antzezlerik garrantzitsuenak.

Gaur egun 9.000 emakumetik gora omen dabil baserriko lanetan, baina hamarretik hiruk baino ez du esplotazioa bere izenean.

Baserrian ere genero berdintasunera heltzeko bide luzea geratzen da, ea behingoz gizarte honek eta batez ere administrazioak emakumeak behar dituen errekonozimendu eta baliabide guztiak jartzen dituen eta zuen lana goraipatzeko eta eskertzeko urtean egun bakarra jarri beharrean egunero aitortu eta bultzatzen duten eta dugun.

DURANGO KABILDUOSTE



Proiektu berria San Roke auzoan, erdigunetik pauso batera.

Informazioa

sukia
Zure etxean zaude Estás en tu casa

946 46 20 41
www.sukia.com